



Bazen behin... berriozar, 2014

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. zikloa: IPUIN SARITUA

HASIERA ETA BUKAERA. Garazi Goldarazena Santxez

Bazen behin, ipuinen munduan, Hasiera izeneko hitz bat. Hasiera harroputz samarra zen, kexati hutsa eta oso hitzuna. Bazen ere beste hitz bat, Bukaera izenekoa. Bukaera lotsatia zen, ez zuen asko hitz egiten eta oso hitz baikorra zen. Hasierari Bukaera zirikatzea gustatzen zitzaion, tuntuna iruditzen zitzaiolako. Baina, bene-benetan, bera bezalakoa izan nahi zuen. Bukaerak, berriz, Hasieraren laguna izan nahi zuen, pertsona paregabea iruditzen zitzaiolako.

Egun batean, klaseko lan batean batera jarri zituzten. Lanean ipuin bat egin behar zuten. Hasierak zioen ipuina berari buruzkoa izan behar zuela eta ipuinaren amaieran bukaera jarri ordez hasiera jarriko zuela. Baina Bukaerari hori ez zitzaion ongi iruditzen, ipuinaren amaieran bukaera jarri behar zelako, beti bezala. Bakoitzak bere ipuina egin zuten:

Hasieraren ipuinaren amaieran ez zuen bukaera jartzen eta Bukaeraren ipuinean ez zuen hasiera jartzen. Konturatu ziren bi ipuinei zerbait falta zitzaie. Azkenean, bi ipuinak batu zituzten eta lanean bikain bat atera zuten.

Baina ez hori bakarrik, lagun handiak egin ziren. Orain, ipuinetan, beti batera ikusiko dituzue, bat ipuinaren hasieran, Hasiera, eta bestea ipuinaren bukaeran, Bukaera.